

<http://ikas.eus/spip.php?article868>



# Animalia bat etxean - antzerkia

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Antzerkia - Kattalin Sallaberryren Antzerkiak -



Linean argitaratua: Astelehena 2010(e)ko abenduaren 20a

---

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak

---



### Animalia bat etxean Kattalin Sallaberryren antzerkia

Obra hau copyrightaz gerizatua da. Baimenik gabe kopiatzea, zabaltzea edo berrekoiztea debekatua da.  
©Ikas, euskal pedagogia zerbitzua, 2010.

**Aita:** Erabaki handi bat hartua dugu zuen amarekin. Hara! Aspaldian eskatzen diguzue animalia bat. Erabaki dugu zuen nahia satifatuko dugula.

**Peio:** Bikain! Nik zaldi bat nahi nuke, zaldi pintto bat! Asteazken arratsaldeetan haren gainean ixtaklok ibiliko nintzateke!

**Ama:** Baina, Peio, badakizu ez dugula pentzerik alhan atxikitzeko!

**Peio:** Ottoren etxean uzten ahalko genuke. Asteburuetan hartaz okupatuko nintzateke!

**Aita:** Eta beste egunetan? Zaldi bat egunero bazkatu behar da, belarra, oloa eta garagarra eman. Gainera zalditegia garbiki atxiki behar da, lastoa usu aldatuz. Ez, zaldi bat ardura handiegia da zuentzat.

**Pantxika:** Nik gatu bat nahi nuke, hiru koloreko gatu bat. Ene ganberan lo egingen luke, ene zangoetan. Ene sekretu guziak kontatuko nizkioke, ene lagun hoberena litzateke. Deituko nuke... Potxolin.

**Marina:** Zuk zure buruari baizik ez duzu pentsatzen. Badakizu arras ontsa gatuen ileei alergia diedala. Nahi duzu hatsa ezin hartuz ar nadin? Gaturik ez da etxe honetan sartuko.

**Aita:** Eta arrain gorriak hartzen bagenitu? Haz errazak dira: ura artetan alda, jaki egina-presta eman, ez dute azantzik egiten, ez dute toki handirik behar eta gainera merkeak dira!

**Peio:** Ez dut abere aspergarriagorik ezagutzen! Gainera zuri so egoiten direlarik iduri du erraiten dutela: "Atera nazazue presondegi honetatik!".

**Ama:** Ez nuen uste hainbeste lan ukanen genuela animalia baten hautatzeko. Ea bada! Ilerik gabeko hein oneko animalia bat! Badakit! Apoarmatuak!

**Pantxika:** Bo! Ez da animalia goxoa ferekatzeko! Gainera ez du ene ohe gainean lo egiten ahalko eta ez dut ene burua ikusten hari sekretu erraten.

**Peio:** Arrazoi duzu : arrain gorriak edo apoarmatuak berdintsu dira. Mutuak, motelak eta aspergarriak.

**Marina:** Eta arratoi bat? Arratoi xuri bat buztan luxe arros batekin? Izigarri abilak omen dira. Sorbaldaren gainean ezar nezake harekin ibiltzera joateko. Ene lagun guziak harrituko lirateke!

**Ama:** Gaitzeko adimena ba omen dute baina ene iduriko arratoia ez da konpainiako animalia. Nik higuingarria atzematen dut xuria eta arrosa baldin bada ere. Enezat leku zikinetan bizi den animalia da.

**Aita:** Eta zakur bat hartzen bagenu? Haatik ez genuke handiegia hartu behar. Zakurrek tokia behar dute lasterka ibiltzeko. Egunero aldizka aterako zenukete eta oporretara joaten garelarik amatxirekin utziko genuke.

**Ama:** Auzo herrian zakur abandonatuen aterpetxe bat bada. Joaten bagina ikustera? Uda hastapenetan zakur anitz utzia omen da bide bazterretan. Baten zoriona egingen genuke gurea egitearekin batean.

**Marina:** Berriz ere ene alergia ahanzten duzue!

**Aita:** Bistan dena ezetz! Medikuak gatuen ileak aipatu ditu eta ez beste animalienak. Joaten bagina delako aterpetxe hortara?

**Haurrak:** Bai, bikain! Ikus dezagun gure gustuko zakurrik badenetz.

**Pantxika:** Potxolin deitzen ahalko dut?

**Marina:** Ez diozu ikusi aitzin izen bat ematen ahal! Itxuraren arabera dugu hautatuko. Gainera denek ados izan beharko dugu. Ez dea hala, aita?

**Aita:** Bai araz! Goazen beraz berehala!

**Jokalariak:** Aita, ama eta hiru haur (Peio, Pantxika, Marina)

**Autorea:** Kattalin Sallaberry

**Argitaratzailea:** Ikas

**Argitaratze data:** 2010/12/21